
**EUSKARA BIZIBERRITZEKO
PLAN NAGUSIA
GASTEIZ
2010-2012**

UDAL GAIAK BILDUMA



Vitoria-Gasteiz
WG



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

EUSKARA BIZIBERRITZEKO

PLAN NAGUSIA

GASTEIZ

2010-2012



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ARGITARATZAILEA:
Vitoria-Gasteizko Udala
Herritar Harremanen Saila

EGILEA:
Euskara Zerbitzua

BILDUMA:
Udal Gaiak

MAQUETACIÓN:
La Debacle S.L.

www.vitoria-gasteiz.org

AURKIBIDEA

ATARIKOAK.....	7
0.1. ATARIKOA.....	9
DATU SOZIOLINGUISTIKOAK.....	11
1.1. BIZTANLERIA.....	13
Biztanleria jaioterriaren arabera.....	14
1.2. HIZKUNTZA GAITASUNAREN BILAKAERA.....	16
1.3. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA.....	17
Etxean erabiltzen den hizkuntza.....	17
Lehen hizkuntza.....	18
Familia bidezko transmisioa.....	18
1.4. UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZA.....	18
1.5. HELDUEN EUSKALDUNTZEA.....	20
Euskaltegi-tako datuak.....	20
Udalaren programak.....	22
1.6. EUSKARAREN ERABILERA KALEAN.....	23
Bilakaera orokorra.....	23
Kale-erabilera, adin taldeka.....	23
Kale-erabilera, haurren presentziaren arabera.....	24
1.7. EUSKARAREN PRESENTZIA AISIALDIAN ETA KIROLEAN.....	25
1.8. EUSKARAREN PRESENTZIA ETA ERABILERA MERKATARITZAN, OSTALARITZAN ETA ZERBITZU-SEKTOREAN.....	27
Euskararen ezagutza.....	27
Euskararen presentzia eta erabilera.....	28
1.9. ZENBAIT ONDORIO ETA LAN-ILDO.....	29
HELBURUAK ETA LAN-ILDOAK.....	31
2.1. HELDUEN EUSKALDUNTZEA.....	34
2.2. IRAKASKUNTZA ETA FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA.....	36
2.3. AISIALDIA.....	38
2.4. KIROLAK.....	40
2.5. KULTURA.....	42
2.6. MERKATARITZA.....	44
2.7. GAZTEAK.....	46
2.8. IMMIGRAZIOA.....	48
2.9. GENERO IKUSPEGIA.....	50
2.10. AURREKONTUA.....	52
EBALUAZIOA.....	53



0

ATARIKOAK

0.1. ATARIKOA

1998an Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. EBPN hizkuntza-ren normalizazioan aurrera jarraitzeko plan estrategikoa da; administrazioari bere jarduna bide-ratzen lagunduko dion lanabes baliotsua, alegia.

EBPNren helburu nagusia honako hau da: euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea; mai-la pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Helburu nagusi horrez gain, EBPNk hiru helburu estrategiko ere baditu: euskara ondorengoe-taratzea, euskara erabiltzea, eta euskara elikatzea (liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez).

EBPN toki entitateetara egokitzeko proposamenak ere egin ditu Jaurlaritzak: azkena 2009aren hasieran. Proposamen horien helburua da erakundeei lanerako marko malgu bat eskaintzea: abiapuntu bat, euskararen normalizazioari lotutako gaietan bide beretik joateko aukera ematen diguna. Proposamen malguak dira, tokian tokiko premietara egokitzeko modukoak.

Gasteizko Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren testua onartu zuen aho batez 2004an. Orduko plan horretan 2005-2008 aldia planifikatu zen.

Aldi hori amaitua, Euskara Kontseiluak estreinako planifikazio horren ebaluazioa egin zuen. Laburbilduz honakoak izan ziren ebaluazio-prozesu horren emaitza nagusiak:

- Aurrerapenak eta hobekuntzak ikusi dira gizarte eragileek Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari buruz duten pertzepzioan.
- Planaren eskema eta helburuen desglosea egokia izan dela baloratu da. Abiapuntu baliagarria da, beraz. Halere, beharrezkoa da estrategiak berrikustea eta ekintzak ebaluatzea, emaitzak hobetu nahi baditugu.
- Komunikazioaren arloa askoz era intentsiboagoan landu beharra azpimarratu da. Helburua ez da egindakoaren berri ematea, baizik eta edukietan eta mezuetan sakontzea.
- Bilakaera positiboa bada ere, Euskararen Sektore Kontseiluaren osaera, funtzionamendua eta lidergo-gaitasuna hobetu beharra aldarrikatu da.
- Udalaren inplikazio instituzionala funtsezkoa dela baloratu da.

Ebaluazio horretatik abiatuta, hausnarketa prozesuari ekitea proposatu zen; 2010-2012 aldian landu behar diren helburuak, estrategiak eta ekintzak berritze aldera. Hausnarketa 8 arloren inguruan egitea erabaki zen. Honakoak:

- Helduen euskalduntzea.
- Hezkuntza eta familia bidezko transmisioa.
- Aisialdia.
- Kirola.
- Kultura.
- Merkataritza.
- Gazteak.
- Immigrazioa.

Aurrekoan bezala, arlo horietako gizarte eragileen partaidetza bilatu nahi izan da: eragile horiek identifikatu eta haiekin batera lan egin hiru hausnarketa gairen inguruan:

- 2005-2008 epealdian egindako lana balioestea.
- Arlo horretan egoera berrikusi eta diagnostikoa gaurkotzea. Horretarako AMIA matrizeak osatu dira (aukerak, mehatxuak, indarguneak, ahuleziak).
- Lehtasunak identifikatu eta egitasmo berriak proposatzea.

Eragile horien iritziak eta proposamenak Euskararen Sektore Kontseiluan aurkeztu eta kontrastatu dira.

Txosten honen lehen atalean datu soziolinguistiko nagusiak ematen dira eta hainbat irakurketa proposatzen. Jarraian zortzi gaiak banan-banan aztertu dira eta helburuak eta estrategiak proposatu. Horrekin batera, datozen hiru urteetarako ekintza-plana ere proposatu da bertan.

1

DATU SOZIOLINGUISTIKOAK



1

DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

1.1. BIZTANLERIA

Gasteizek 236.525 biztanle zituen 2009ko urtarrilean: 119.728 emakumezkoak eta 116.797 gizonezkoak. Hortaz, azken urteetako hazteko joerari eusten dio; 2009ko urtarrilean 2008koan baino 3.126 biztanle gehiago zituen Gasteizek. Hazkuntzaren oinarrizko bi osagaiek datu positiboak ematen dituzte: saldo begetatiboa (727) eta migrazio saldoa (2.399). Hiriko auzo berrietan biztanleriaren %6 bizi da dagoeneko: Salburuak 6.116 biztanle ditu; eta Zabalganak, 7.216.

Gasteizko biztanleriak, adinaren arabera, honako egitura du:


- 19 urtera arte: %17,1
- 20 eta 64 urte bitartean: %66,6 (bi herenak)
- 65 urte edo gehiago: %16,3

2003. urtearekin alderatuta, adin tarte gazteena apurtxo bat txikiagoa da (2003an, %17,5) eta zaharrena apurtxo bat handiagoa (2003an, %15,4).

Zonaldearen arabera esan behar da 2008an 0-14 urte bitarteko biztanle-portzentaje handienak honako zonaldeetan zeudela: Lakua (%24,6), Mendizorrotza (%20,2) eta San Martin-Ariznabarra (%20,1).

Bestalde, 65 urte baino gehiagokoen portzentajerik handienak dituztenak honakoak dira: Babesgabatuak eta Judimendi (%26,8), Zaramaga (%26,1) eta Errota (Koroatzeta-Gorbea) (%25,5).

BIZTANLEAK ADINAREN ARABERA



Biztanleria jaioterriaren arabera

Gasteizen 10 biztanletik 4 Arabatik kanpo jaiotakoak dira; %8,4, atzerrian.

EAE, guztira	%63,1
Araba	%55,3
Beste lurraldeak	%28,5
Atzerria	%8,4

Portzentaje horrek Arabako eta EAEko batez bestekoa gainditzen du (%7,3 eta %5,4, hurrenez hurren) baina ez Nafarroakoa (%10,4). Estatuko zenbait hiritako datuetatik ere urrun dago: Bartzelonan, esate baterako, %17,3 dira atzerrian jaiotakoak.


Zonaldeen arabera hainbat auzotan portzentaje hori bi digitutara heltzen da: Alde Zaharrean (%18,1), Pilar auzoan (%11,2) eta Koroatze aldean (%11,2). Adinari dagokionez, azpimarragarria da gazteen ia %17 atzerrian jaioa dela.

Atzerrian jaiotakoak 9.185 ziren 2003an eta 19.540 2008an. Hazkundera, beraz, %112,7 da.

Beste herrialdeetatik etorri direnen kolektibo handiena Ertamerikan eta Hegoamerikan jaiotakoak dira (ia 8.000 pertsona). Bigarren, Magrebean jaiotakoak dira (4.138).

ATZERRIAN JAIOTAKOAK	ATZERRIKO BIZTANLEAK		BILAKAERA 2003-2008	
	2008	2003	Kop.	%
Europear Batasuna	2.677	1.453	+1.224	+84,2
Europako besteak	2.071	763	+1.308	+171,4
Magreb	4.138	2.104	+2.034	+96,7
Afrikako besteak	1.162	614	+548	+89,3
Iparramerika	170	135	+35	+25,9
Ertamerika	637	343	+294	+85,7
Hegoamerika	7.337	3.420	+3.917	+114,5
Txina	574	200	+374	+187,0
Asiako besteak	774	153	+621	+405,9
OROTARA	19.540	9.185	+10.355	+112,7


ATZERRIAN JAIOTAKOAK, JATORRIAREN ARABERA (2008)



1.2. HIZKUNTZA GAITASUNAREN BILAKAERA

Gasteizko biztanleen artean 5etik 3 erdaldun elebakarrak dira (%57). Elebidun hartzaileak, hau da, euskaraz ondo hitz egin ez arren ulertzeko gaitasuna dutenak, %18 dira. Euskaldunak, berriz, biztanleriaren %25 dira (lau biztanletatik bat). 1986tik 2006ra laukoiztu egin da euskaldunen portzentajea.

Denbora tarte txikiagoa hartuz, 1996etik 2006ra, euskaldunen portzentajeak 11 puntu egin du gora eta elebidun hartzaileen portzentajea ere hazi egin da, maila askoz apalago batean bada ere. Erdaldun elebakarren portzentajeak, beraz, behera egin du (12 puntu).




Adinaren arabera, 5 urteko adin-tarteak aztertuta, erdaldun elebakarrak nagusi dira 35 urtetik gorako adin tarte guztietan: erdia baino gehiago 35 eta 44 urteko bitarteko adin-tarteetan eta bi herenak baino gehiago hortik gorakoetan.

Gazteen artean 25 urtetik beherako adin-tarteetan biztanleriaren erdia edo gehiago euskalduna da. 25 eta 29 urte-tarteetan antzeko kopuruak dira euskaldunak, elebidun hartzaileak eta elebakarrak.

Adina erabakigarria da, beraz, biztanleen hizkuntza-tipologia eraikitzeko orduan. Gazteen artean (15 eta 30 urte bitartekoak) ia erdiak (%47,4) euskaldunak direla ikusi ahal dugu. Portzentaje hori are handiagoa da soil-soilik adin tarte gazteena kontuan hartzen badugu (15-19 urte bitartekoak) %61,6).

Euskaldunak eta elebidun hartzaileak kontuan hartzen baditugu, hamar gazteetatik zortzi (%78) elebidun hartzaileak dira (euskaraz ulertzen dute, alegia).

HIZKUNTZA-GAITASUNA ADINAREN ARABERA



1.3. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Etxean erabiltzen den hizkuntza

Gasteizko biztanle gehienek gaztelania erabiltzen dute etxean (%93,1). Etxean euskaraz hitz egiten dutenak biztanleriaren %1,9 dira. Kopuru horri euskara zein gaztelania erabiltzen dutenen kopurua gehitzen badiogu portzentajea %5,5era heltzen da.

ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA (2006)		
Euskara	4.409	%1,9
Gaztelera	213.721	%93,1
Biak	8.261	%3,6
Besteren bat	3.277	%1,4
	229.668	%100

Datu hauetan ere, bilakaera positiboa izan da azken urteotan. Izan ere, 1991tik hona, 15 urteren buruan, etxean euskara (nagusiki zein gaztelaniarekin batera) erabiltzen duten biztanleen portzentajeak 1,9 puntuko hazkundea izan du. Datuak, hala ere, oso apalak dira.

ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA	1991	1996	2001	2006
Euskara edo euskara eta gaztelania	%3,6	%4,3	%4,9	%5,5

Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntzari dagokionez, antzeko irakurketa egin beharko genuke. Etxean euskara lehen hizkuntza gisa jaso duten Gasteizko biztanleak % 6,2 dira (euskara edo biak).

	2006	
Euskara	8.028	%3,5
Gaztelania	206.545	%89,9
Biak	6.248	%2,7
Beste bat	8.847	%3,9

Orain dela 5 urte, aurreko plangintzaldiaren hasieran, %5,3 ziren. Hobekuntza, beraz, ez da puntu batera iritsi.

	1986	1991	1996	2001	2006
Euskara	%2,1	%2,4	%2,6	%3,1	%3,5
Gaztelania	%95,3%	%94,8	%93,9	%92,5	%89,9
Biak	%1,4%	%1,6	%2,2	%2,2	%2,7
Beste bat	%1,2%	%1,2	%1,3	%2,2	%3,9

Datuak askoz hobeak dira adin-tarte gazteenak kontuan hartzen baditugu. 2 eta 4 urte bitarteko haurren %18k euskara nahiz euskara eta gaztelania izan dute lehen hizkuntza (5 eta 9 urte bitarteko haurren kasuan %16,7 da portzentajea).

Familia bidezko transmisioa

Familia bidezko transmisioari buruz egin diren azken ikerketen arabera guraso euskaldun berriak, hau da, euskara etxetik kanpo ikasi dutenak gero eta gehiago ari dira euskara transmititzen, eta familia bidez transmititzen ez den kasuetan, eskola bidez ziurtatzen da, neurri handi batean, seme-alaba horiek euskara ikasiko dutela. Izan ere, euskaldun berrien seme-alaben %80tik gora elebidunak dira gaur egun.

Halere, euskaldun berrien %90ek familian gaztelania erabiltzen dute nagusiki. Hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktore nagusiak bi dira: hizkuntza hitz egiteko erraztasuna eta hizkuntza horretako hiztunen harreman-sarea. Euskaldun berri askoren kasuan ez dira baldintza horiek betetzen.


1.4. UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZA

Gasteizen orotara unibertsitate aurreko 105 ikastetxe dago (etapa guztiak kontuan hartuta); horietatik 76 publiko dira eta 29 pribatu. 2008-2009 ikasturtean 37.589 ikasle aritu dira, %54 ikastetxe publikoetan eta %46 pribatuetan. Honela:

- Haur Hezkuntza, %26
- Lehen Hezkuntza, %32,5
- DBHn, %21,5
- Batxilergoan, %10,7; eta Lanbide Heziketan, %9,4

Ikas-ereduari dagokionez, unibertsitate aurreko ikasleen erdiak (%55) A ereduan ikasten du, %25k B ereduan eta %20k D ereduan.


UNIBERTSITATE AURREKO IKASLEAK EREDUAREN ARABERA. 2008-2009



Adinaren eta etaparen arabera alde handiak daude:

- Haur Hezkuntzan B eredia da nagusia (%48,1) eta D eredia ere oso gertu dago (%44,4).
- Lehen Hezkuntzan bien arteko aldea handiagoa da eta A ereduak ere pisu handia hartzen du (B ereduan %45,8, D ereduan %24 eta A ereduan %20).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan A eredia gailendu egiten da (%38,9) baina B eta D ere gertu ditu (%30,7 eta %30,7, hurrenez hurren).
- Hortik gora, B eredia hezkuntza sistematik desagertzearekin batera, A ereduak hartzen du nagusitasuna, D ereduaren gainetik, batez ere Lanbide Heziketan.

HIZKUNTZA EREDUAK, MAILAREN ARABERA



2008-2009 eta 2003-2004 ikasturteetako datuak alderatuz, 5 urteko bilakaera ikus daiteke:

- Haur Hezkuntza D ereduak 14 puntutan hazi da; eta B ereduak 3 puntutan.
- Lehen Hezkuntza D ereduak 7 puntuko hazkundera izan du; eta B ereduak 6koa.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza D ereduak 10 puntu irabazi du; eta B ereduak 6.

Adierazle interesgarriak dira, halaber, unibertsitateko hautaprobetan matrikulatutako ikasleen datuak. Arabako datuak ditugu (ez Gasteizkoak). Araban ia ikasleen erdiak euskaraz egin du unibertsitatean sartzeko hautapropa (2001ean %32 ziren). Hona hemen:

	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	GUZTIRA
Araba	%45,9	%54,1	1.086
EAE	%57,1	%42,9	7.923

Beste datu esanguratsu bat ikastetxeetako hizkuntza normalkuntzarako proiektuak dira. Lehen proiektuak 1996-97 ikasturtean bideratzen hasi ziren Autonomi Erkidegoan, hiru zutabe nagusiren gainean:

- Normalkuntza proiektuen motorra ikastetxean bertan egon behar zen.
- Ikastetxeko motor hori kanpoan ere elikatu behar zen.
- Ikastetxeak eta inguruneak elkar elikatu behar zuten.

Hortik ULIBARRI programa sortu zen, ikastetxeetako proiektu horiek guztiak koordinatzeko eta bateratzeko. Gasteizen gaur egun 65 ikastetxe dago (Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Berreziak alde batera utzita) eta horietatik 21 daude Ulibarri programaren barruan eta beste bi Euskaraz Bizi proiektuan koordinatuak: hirutik bat pasatxo, alegia.

Ikastetxeetako Normalkuntza proiektuetan honako atalak lantzen dira:

- Ikastetxearen antolakuntza
- Irakasleak
- Ikasleak
- Gurasoak
- Irakasleez bestelako langileak
- Euskararen inguruko erabakiak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Kanpo harremanak

Udalak hor kokatu izan du bere zeregina. Bi ataletan, batez ere:

- Gurasoak
- Eskolaz kanpoko ekintzak

1.5. HELDUEN EUSKALDUNTZEA


Euskaltegiako datuak

Helduen euskalduntzea oso fenomeno zabalduta da euskal gizartean. Gasteizko daturik ez dugu, baina egin berri den ikerketa baten arabera, euskal herritarren %65 euskara ikasten saiatu da noizbait (Unesco Etxea: Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak).

Hori horrela, bai azpimarratu behar da urtero 6.000tik gora direla Gasteizko euskaltegietan eta autoikaskuntza zentroetan euskara ikasten duten gasteiztarak.


Urtez urte matrikulazioak honako bilakaera izan du:

IKASLE KOPURUA GASTEIZKO EUSKALTEGIETAN



Adierazgarria da, bestalde, oraindik ere ikasleen kopuru handi bat (%21) hasierako urratsetan matrikulatu izana. Izan ere, ikasleen erdia baino gehiago (%56) euskalduntzearen lehen mailan dago matrikulatua (lehengo atalase maila, 1. eta 6. urratsak).

EUSKALTEGIETAKO IKASLEAK MAILAKA



Udalaren programak

Helduen euskalduntzeari dagokionez, diru-laguntzez gain, Udalak hiru programa ditu: gurasoentzako euskara ikastaroak (gizarte etxeetan), Aisa (harrera ikastaroak atzerritarrentzat) eta merkatarienezko euskara ikastaroak. Lehenak ibilbide luzea du; bigarrenak hiru urte egin ditu dagoeneko eta nahiko kontsolidatuta dagoela uste dugu; hirugarrena oso berria da eta oraindik ere guztiz gorpuztu gabe dago.

Esan bezala, Udalak 1989. urtetik geroztik gurasoentzako euskara ikastaroak antolatzen ditu. Helburua da gurasoek oinarritzko euskara ikastea, seme-alabekin hitz egin ahal izateko eta haurrek eskolan ikasten dutena etxean indartzeko. Azken urteotako datuei begiratuz gero honako ikuspegia dugu:

a) Matrikulazioari buruzko datuak:

	TALDEAK	IZEN-EMATEAK	BILAKAERA
2004-2005	55	694	%-10,7
2005-2006	60	782	%12,7
2006-2007	63	808	%3,3
2007-2008	67	843	%4,3

b) Eraitza akademikoak:

	BAJAK	GAINDITUAK	BERMATRIKULA: AURREKO IKASTURTEETAN IBILITAKOAK
2004-2005	%26,5	%71,5	%43,6
2005-2006	%20,0	%76,0	%52,3
2006-2007	%20,2	%63,6	%45,8
2007-2008	%18,1	%69,3	%49,1

c) Partaideen profilari buruzkoak:

- Emakumezko gehiago dira gizonezkoak baino.
- Adinari dagokionez, erdia baino gehiago 26 eta 40 urte bitarteko adin-tartean dago:

25 bitartean	%1
26 eta 40 bitartean	%61
41 eta 60 bitartean	%37
> 60 urte	%2

Ikasketei dagokienez, erdiak Batxilergoa edo Lanbide Heziketa du. Hirutik batek unibertsitate mailako ikasketak. Esanguratsua da ia ikasleen %90 lehen mailan dagoela

AISA atzeritarrentzako harrera ikastaroak dira, Eusko Jaurlaritzak, HABEren eta Immigrazio Zuzendaritzaren bidez, sustatutakoak. Gasteizen Euskara Zerbitzuak eta NORABIDEk (etorkinentzako harrera-zentroak) antolatzen dituzte elkarlanean.

IKASTURTEA	IKASLEAK
2006-2007	73
2007-2008	31
2008-2009	145

Merkatarientzako Euskara ikastaroak GASTEKO programaren barruan antolatzen dira. 2008-2009 ikasturtean eskaini ziren lehen aldiz eta talde bakarra osatu zen.

IKASTURTEA	IKASLEAK
2008-2009	8

1.6. EUSKARAREN ERABILERA KALEAN

Soziolinguistika Klusterrak euskararen erabileraren kale neurketak egiten ditu 4 urtean behin. Behaketa bidez kaleko elkarrizketetan euskararen erabilera jasotzen da. BAT soziolinguistika al-dizkarian Martinez de Luna irakasleak Arabako datuen irakurketa argitaratu zuen 2007ko irailean. Irakurketa hori erabili dugu.

Bilakaera orokorra

Gasteizko kaleetan gertatzen diren elkarrizketetatik %4 besterik ez da euskaraz.


EUSKARAREN KALE-ERABILERA 1989-2006 (%TAN)			
URTEA	Araba	Gasteiz	Euskal Herria
1989	3,9	2,0	10,8
1993	3,9	2,5	12,0
1997	3,8	2,9	13,0
2001	3,3	2,8	13,5
2006	4,7	4,0	14,2

Hamazazpi urteotan, Gasteizen, euskararen kale-erabilera bikoiztu egin da, ehuneko ehun hazi da. Martinez de Lunaren hitzetan, "hitz potoloak dira, baina errealitate apala: 1989an %2koa zen eta 2006an halako bi (%4)".

Kale-erabilera, adin taldeka

Adin tarteka hartuta, Araba eta Gasteizko joerak ikusita, Araban erabilera pixka bat altuagoa da, baina ez dago alde esanguratsurik. Haurrak eta gazteak dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak, batez ere Araban (%6,8 eta %6,6, hurrenez hurren), baina baita Gasteizen ere (%5,8 eta %6,3, hurrenez hurren).

KALE-ERABILERA, ADIN-TALDEKA (%)								
URTEA	Haurrak		Gazteak		Helduak		Adinekoak	
	Araba	Gasteiz	Araba	Gasteiz	Araba	Gasteiz	Araba	Gasteiz
1989	5,7	2,7	3,3	2,0	3,4	2,0	4,8	0,7
1993	5,8	4,2	3,5	2,0	3,5	2,6	4,1	0,9
1997	5,4	4,6	3,6	3,4	3,4	2,4	1,4	0,9
2001	4,4	3,5	3,7	3,4	3,2	2,9	0,9	0,3
2006	6,8	5,8	6,6	6,3	4,5	3,7	0,8	0,6



Kale-erabilera, haurren presentziaren arabera

KALE-ERABILERA, HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA					
2006 urtea	Erabilera, oro har, haurren bat tartean dagoela (%)	Nagusien arteko erabilera (%)		Haur eta Nagusien arteko erabilera (%)	Haurren arteko erabilera (%)
		Haurren bat tartean dagoela	Haurrik gabe		
Vitoria	5,9	3,0	2,6	8,9	0,8

Gasteizen, helduen eta haurren arteko harremanetan euskararen erabilera altuagoa da (%8,9) beste konbinazio mota guztietan baino. Gainera, Gasteizen ez ezik, Hego Euskal Herriko beste hiriburuetan ere beste horrenbeste gertatzen da.

Beste muturrean, hots, haurrik tartean egon ezean, helduen arteko erabilera apalagoa da (%2,6) harreman horietan haurren bat tartean dagoenean baino (%3). Bestela esanda, haurren presentziak helduen harremanetan eragiten du, modu arinean bada ere.

Hala ere, ez dirudi haurrak berak direnik euskararen erabilera beren kabuz eragiten dutenak; izan ere, solaskideen artean haurrak baino ez daudenean euskararen presentzia inoiz baino baxuagoa da (%0,8).

1.7. EUSKARAREN PRESENTZIA AISIALDIAN ETA KIROLEAN

Arabako herritarren %70k garrantzi handia ematen dio bere bizitzan aisialdiari eta %26k nahikoa. Askoz gutxiago dira garrantzi handirik eman ez (%3) edo batere garrantzirik ematen ez diotenak (%1). Aisialdiaren balioa gorantz joan da azken urteotan: duela hamabi urteko datuekin alderatuta, gaur egun jendeak garrantzi handiagoa ematen dio bere bizitzan aisialdiari (Prospezio Soziologikoen Kabinetea, 2008)

Astegunetan gehien egiten diren aisialdiko jarduerak ondokoak dira:


- Lehen-lehenik telebista, bideoa edo DVDa ikusi (herritarren %32k aipatu dute gehien egiten dituzten hiru jardueren artean), paseatu edo kalean egon (%24k) eta familiarekin egon (%23k).
- Ondoren datoz lagunekin eta bikotekidearekin egon (%18), irakurri (%18), musika entzun (%14), kirola egin (%11), atsedeen hartu edo ezer ez egin (%11), irratia entzun (%9) eta ordenagailuarekin denbora pasatu (%7). Ondoren jende gutxiagok egiten dituen beste hainbat jarduera datoz.

Gasteizko Udalak aisialdiko eskaintza eta zerbitzuak ditu, hainbat sail eta zerbitzuren bidez: Gazteria, Gizartegintza, Kirolak, Kultura... Eskaintza esanguratsuenak, ziur asko, gizarte etxee-tako programazioan biltzen dira. 2008-2009 ikasturtean 5.033 jarduera programatu ziren eta ia 100.000 plaza eskaini. Gauzatu, gutxiago gauzatu ziren: 4.213 orotara, eta horietan 62.631 matrikula formalizatu ziren.

Eskaintza horren parte handiena (%67,8) Kirol Sailak antolatutako jarduerak dira eta orotara 41.000 matrikula biltzen dituzte. Bigarren eskaintzarik handiena Kultura Sailak egin du: (%12,3). Beste lau atalek eskaintzaren %4,5 eta %5 bitartean dute: Herritar Harremanen Sailak (%4,5), Gazteria Zerbitzuak (%4,8 aparte kontabilizatua, nahiz eta zerbitzua Herritar Harremanen Sailaren barruan egon) eta Osasun eta Kontsumo Sailak (%4,7).

Hizkuntzari dagokionez, 2008-2009 ikasturtean lau jardueratik hiru gaztelaniaz programatu ziren. Euskarazko jardueren portzentajea %13 izan zen.

GIZARTE ETXEETAKO JARDUEREN HIZKUNTZA (2008-2009)



Sailez sail, honakoa da egoera:

	ELE BIETAN	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
INGURUGIROA	% 0,0	% 97,4	% 2,6
KULTURA	% 0,6	% 76,9	% 22,5
KIROLAK	% 5,9	% 82,3	% 11,8
GIZARTEGINTZA	% 19,8	% 77,3	% 2,9
HERRITAR HARREMANAK	% 5,3	% 42,3	% 52,4
OSASUNA ETA KONTSUMOA	% 0,0	% 100,0	% 0,0
GAZTERIA	% 100,0	% 0,0	% 0,0

Herritar Harremanen Sailak du euskarazko jardueren portzentaje handiena baina kontuan hartu behar da Euskara Zerbitzua sail horretan dagoela eta guraso programa ere (800 ikasle inguru) horren barruan zenbatu dela. Hortik kanpo, beraz, Kultura Sailak du euskarazko jardueren eskaintza handiena (%22,5; ia lautik bat).

Gazteriak aisialdirako zerbitzuak kudeatzen ditu gizarte etxeetan: ludotekak, ludo-klubak, gazte-klubak. Zerbitzu horiek guztiak ele bikoak dira: langile guztiak dira elebidunak, banan-banako elkarrenginaren solaskidearen hizkuntza hartzen da kontuan eta euskararen presentzia bermatzen da taldeko elkarrenginaren.

Kirol Sailaren kasuan euskarazko ikastaroak %11,8 dira eta %6 inguru ele bietan programatzen direnak. Ele bietan programatzen diren ikastaroetan banan-banako elkarrengina da nagusi (adib.: igeriketan).

Gizartegintzaren programazioan bostetik bi ele biko jarduerak dira. Bi eratako jarduerak dira:

- Familientzat: Familiarteko jolasak eta Senidegunea
- Ikasten laguntzeko txokoak

1.8. EUSKARAREN PRESENTZIA ETA ERABILERA MERKATARITZAN, OSTALARITZAN ETA ZERBITZU-SEKTOREAN

Arabako Lautadan 21.048 enpresa dago, eta 117.885 lanpostu. Gehienek Gasteizen dute egoitza: 19.904 enpresa orotara eta denen artean 111.331 lanpostu.

Arloen arabera, honakoa da egoera:

ESTABLEZIMENDUAK ETA ENPLEGUA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA (2008)	KOP.	ENPLEGUAK
Industria eta energia	1.386	28.900
	%6,6	%24,5
Eraikuntza	3.139	10.835
	%14,9	%9,2
Merkataritza eta konponketa	5.294	17.948
	%25,2	%15,2
Ostalaritza	1.646	5.508
	%7,8	%4,7
Garraioak eta komunikazioak	1.562	5.851
	%7,4	%5,0
Bankuak, aseguruak eta enpresa-zerbitzuak	4.890	18.857
	%23,2	%16,0
Bestelako zerbitzu-jarduerak	3.131	29.986
	%14,9	%25,4
Guztira	21.048	117.885
	%100,0	%100,0

Establezimendu horien guztien %25 merkataritza arlokoak dira, ostalaritzakoak %7,8 eta zerbitzuetakoak %14,9 (bankuak, aseguru etxeak eta antzekoak kontatu gabe). Arlo horiek, beraz, garrantzi handia dute hiriko bizitza ekonomikoan.

Ikuspegi soziolinguistikotik are lehentasun handiagoa dute arlo horiek, beren eragina biztanle guzti-guztiengana heltzen delako eta hiriko hizkuntza paisaia pisu handia dutelako.

2007an Siadeco enpresak Gasteizko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzu-sektorean euskararen egoera aztertzeko ikerlana egin zuen, Euskara Zerbitzuaren eskariz. Jarraian azterketa horren emaitza nagusiak aurkezten ditugu.

Euskararen ezagutza


Establezimenduetako enplegatuen euskara gaitasuna aztertu zen, establezimendua kokatuta dagoen zonaldearen eta jarduera-adarraren arabera. Laburbilduz honako emaitzak eskuratu ziren:

- Euskaraz ongi edo oso ongi ulertzeko gaitasuna %12,9 da; hitz egitekoa %11,4; irakurtze-

koa %12,6; eta idaztekoa, berriz, %11,6. Hitz egiteko gaitasuna soilik hartuta, euskaldunen ehunekoa % 11,4koa da, beraz.

- Establezimenduetako arduradunen artean, euskaldunetz gain (%11,4) badago ia euskaldunen beste multzo bat ere, % 25,6koa.

EUSKARAREN EZAGUTZA KOMERTZIOETAN, JARDUERAREN ARABERA



Era berean, beste ikerketa batean agertzen denez ("Gasteizko txikizkako merkataritzaren giza baliabideei eragiten dieten ezberdintasun faktoreak, eta sektorearen azterketa immigrazioarekiko" txostena), hiriko txikizkako merkataritza establezimenduetan lanean ari diren pertsonen %28k euskara ulertzeko gai direla adierazten dute.

Euskararen presentzia eta erabilera

Bezeroekiko komunikazioan, oro har, ahozko eta idatzizko komunikazioa kontuan hartuta, euskararen batez besteko erabilera %5,2koa da. Beraz, bezeroekiko duten komunikazioaren %94,8 erdaraz izaten da (gaztelaniaz nagusiki, baina, tarteka, beste hizkuntza batzuk erabiliz ere).

Zonalde eta jarduera adarraren arabera aldeak adierazgarriak dira. Euskararen batez besteko erabilerarik altuena 1. zonaldean da (Erdialdea eta Alde Zaharra, %8,3), eta baxuena, aldiz, 4. zonaldean (auzoak, %2,6). Bestalde, ostalaritza establezimenduetan gertatzen da batez besteko erabilera mailarik altuena (%7,4) eta zerbitzuetan, aldiz, baxuena (%3,4). Txikizkako merkataritza establezimenduetan, batez besteko erabilera %4,5 da.

	TXIKIZKAKO MERKATARITZA	OSTALARITZA	ZERBITZUAK	GUZTIRA
Euskara	4,5	7,4	3,4	5,2
Gaztelania	94,8	92,0	96,5	94,2
Bestelako hizkuntzak	0,7	0,6	0,1	0,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco 2007

Idatzizko elementu eta komunikazio euskarriez galdetzeko, 4 elementu-multzo bereiztu dira:

- Establezimenduaren kanpo eta barneko errotulazioa eta idazkiak: establezimenduaren izen komertziala, errotulu nagusia, ordutegia, merkealdiko kartelak, erakusleihoak prezioak eta kartelak, produktuen informaziorako etiketak, jendaurreko produktu katalogoak, prezio zerrendak...
- Bezeroarekiko harremanetan erabilitako elementu desberdinak: zigilua, bisita txartela, kutxako tiketa, fakturak, albaranak, poltsak edota produktuak biltzeko paperak, establezimenduak erabiltzen dituen gutun azalak, faxerako azala, ibilgailuko errotulazioa....
- Komunikazio, publizitate eta marketing elementuak: postontzietarako euskarriak, aldizkarietan ipinitako iragarkiak, irriti iragarkiak, egutegiak, establezimenduaren webgunea...
- Establezimenduaren gestio eta bestelako barne inprimaki eta dokumentuak: kontu liburuak, kontratu eta nominak, TC eta Gizarte Segurantzako inprimakiak, inbentario orriak, barne oharak, programa informatikoak...

Emaizak honakoak izan dira:

- Establezimenduaren kanpo eta barneko errotulazio eta idatzien multzoan, euskararen batez besteko erabilera %11,8koa da; %10,3tan euskara eta gaztelania batera agertzen dira, eta %1,5etan euskara soilik agertzen da.
- Komunikazio, publizitate eta marketing elementuen multzoan euskararen batez besteko erabilera %9koa da; %7,7tan euskara eta gaztelania batera agertzen dira, eta %1,3tan euskara soilik agertzen da.
- Bezeroarekiko harremanetan erabilitako elementuen multzoan, euskararen batez besteko erabilera dezente baxuagoa da, %4,8koa hain zuzen ere; eta gehien-gehiena, bietara dau-den elementuei zor zaie.
- Azkenik, establezimenduaren gestio eta bestelako barne inprimaki eta dokumentuetan, euskararen batez besteko erabilera (euskara soilik eta ele bietan) %3,1ekoa da.

1.9. ZENBAIT ONDORIO ETA LAN-ILDO

Laburpen sakonik egin gabe ere, badira hainbat datu Gasteizko egoera soziolinguistikoaren berri oso modu deskriptiboan ematen dutenak:

- 1986tik 2006ra euskaldunen portzentajea 19 puntu igo da eta elebidun hartzaileena askoz maila apalagoan (3 puntu). Oraindik ere erdaldun elebakarrak dira biztanleen erdiak baino gehiago (%57).
- 30 urtetik beherakoen artean biztanleriaren erdia euskalduna da Gasteizen. Inflexio-puntu bat izan daiteke.
- Araban bost euskaldunetatik 4 (%79,3) euskaldun berriak dira: eskolan edo euskaltegian euskaldundutakoak, alegia. Euskaldun berrien kasuan, pentsatzekoa da horietako asko hobeto moldatuko direla gaztelaniaz euskaraz baino eta harreman sareak nahiko erdaldunak izango dituztela. Zailago dute, beraz, euskara erabiltzeko aukerak izatea.

- Irakaskuntza ez-unibertsitarioan B eta D ereduek gora egin dute, poliki baina etengabe. Lanbide Heziketan eta Batxilergoan A eredia nagusia da. Batxilergoan, hala ere, D eredia ere indarra hartzen ari da poliki.
- Gasteizko ikastetxeen artean hirutik batek normalkuntza-plana du abian. Ikastetxe horiek Gasteizko ikasleen artean erdia baino gehiago biltzen dute.
- Erabilera oso txikia da oro har. Soziolinguistika Klusterrak 2006an egin zuen kale-neurketan euskararen erabilera %4 izan zen Gasteizen. Portzentaje hori ia %6ra igo zen tartean haurren bat zegoenean.

Datu soziolinguistiko horiek etorkizunerako hainbat lan-ildo iradokitzen dute. Esate baterako:

- Hartu beharreko neurriak eta politikak erabakitzerakoan kontuan hartu behar da euskaldun berrien kopurua eta haur-gazteen artean dagoen euskaldun kopurua.
- Gasteiz hiri jendetsua izaki eta euskaldunak sakabanatuak daudenez, garrantzitsua da herritarrek harremanak euskaraz izateko guneak eta aukerak sustatzea. Beste era batera esanda, garrantzitsua da euskaraz egiteko aukera estrukturalak bultzatzeko egitasmoak indartzea.
- Gasteizko biztanle gehienek gaztelania erabiltzen dute etxean (%93,1). Etorkizunean funtsezkoa izan daiteke bikote euskaldun berriek hartuko duten jarrera eta zein hizkuntza hautatuko duten etxean seme-alabekin hitz egiteko.
- Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektoreak garrantzi berezia du bere eragina biztanle guzti-guztiengana heltzen delako eta hiriko hizkuntza paisaian duen pisu espezifikoagatik.
- Aisialdi antolatuak aisialdi-denboraren parte txiki bat besterik ez du hartzen. Ezinbestekoa izango da aisialdirako eskaintzan eragitea, baina ez da nahikoa izango. Eskaintza handitzea ez ezik, arlo kualitatiboan ere eragin beharko dugu: eskaintzaren erakargarritasunean, alegia.

2

HELBURUAK ETA LAN-ILDOAK



2

HELBURUAK ETA LAN-ILDOAK

2.1. HELDUEN EUSKALDUNTZEA

Helduen euskalduntzea oso fenomeno zabala da: gasteiztar asko euskaltegietatik pasatu dira euren bizitzaren une batean edo bestean eta euskaldunen portzentajeak Gasteizen gora egin du etengabe. Hala ere, oraindik ere erdaldun elebakarrak dira biztanleen erdiak baino gehiago (%57). Jarraitu beharko da, beraz, herritarren artean euskararen ikaskuntza bultzatzen.

Ildo horretan, sentsibilizazioaz gain, interesgarria da eskaintza berezituak eratzen jarraitzea: xede-taldeak identifikatzea eta euren neurriko ikas eskaintza antolatzea, alegia.

Ikaste-prozesua, bestalde, luzea da: are luzeagoa erabilerarako jauzia emateko baldintzak ematen ez badira. Euskara ikasten ari diren pertsonentzat erabilerari begirako espazioak eta aukerak ugaritu behar dira, eta euskaltegietako lanarekin osagarria izango den ikaskuntza ez-formala gertatzeko erraztasunak sortu.

Helburuak

1. Herritarren artean euskararen ikaskuntza bultzatzea.

Estrategiak:

- Euskaltegiekin lankidetzan arituz, euren lana erraztu eta eraginkorragoa izateko.
- Herritarrei erraztasunak eskaintzen jarraituz.
- Sentsibilizazioa eta komunikazioa landuz.
- Euskaltegietako eskaintza beste eragileekin koordinatuz (merkataritza ganberarekin, ikastetxeekin...).

2. Euskara erabiltzeko espazioak eta aukerak eskaintzea euskara-ikasleei eta ia-euskaldunen kolektiboari; batez ere, aisialdiari lotuta.

Estrategiak:

- Euskaltegietara erakunde desberdinetatik iristen diren eskaintzak bateratuz eta zabalduz.
- Programazio espezifiko baten bidez.
- Euskarazko harreman sareak sortuz (batez ere gurasoen artean).

GASTEIZKO EBPEN 2010-2012 - ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA

Esparrua	HELDUEN EUSKALDUNTZEA			
Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ard.	Ekintzak / programak
1. HE Herritarren artean euskara- ren ikaskuntza bultzatu	Hitzarmeneko proiektuen betetze maila	1.1. Euskaltegiekin lankidetzan arituz euren lana erraztu eta eraginkorragoa izateko	Eusk. Zerb.	1.1.1. Hitzarmena euskaltegiekin. Beste partida batean (*)
	Diru laguntza jaso duten pertsonen kopurua	1.2. Herritarrei erraztasunak ekintzen jarraituz	Eusk. Zerb.	1.2.1. Diru laguntza ikasleentzat. Beste partida batean (*)
	Euskara ikasten ari diren pertsona helduen kopurua	1.3. Sentsibilizazioa eta komunikazioa landuz	Eusk. Zerb.	1.3.1. Matrikulazio kanpaina
	Ikastaro eskaintza bakoitzean euskara ikasten ari diren pertsona helduen kopurua eta diru laguntza jaso duten pertsonen kopurua	1.4. Euskaltegietak eskaintza beste eragileekin koordinatuz (merkataritza ganbera, ikastetxeak...)	Eusk. Zerb. Merk. Ganb. Norabide	1.4.1. Euskara gurasoentzat
				1.4.2. Euskara merkatarientzat
				1.4.3. Euskara etorkinentzat. AISA
				1.4.4. Diru laguntzak merkatarientzat
				1.4.5. Diru laguntzak gurasoentzat.
				1.4.6. Diru laguntzak begirale eta hezitzaileentzat (aisia eta kirola)
				1.4.7. Euskara aitona-amonentzat
				1.4.8. Euskara ostalarientzat
2. HE Euskararen eza- gutza mugatua edo pasiboa dutenei aisialdiko erabilera-aukera eskaini	Ekintzetako partehartzaile kopurua	2.1. Euskaltegiak erakunde desberdinetatik iristen den eskaintza bateratuz eta zabalduz	Eusk. Zerb.	2.1.1. Urteko katalogoa sortu
		2.2. Programazio espezifiko baten bidez	Eusk. Zerb. Euskaltegiak	2.2.1. Mintzapraktika egitasmoa abian jarri, euskaltegiek dituzten programazioetatik abiatuta.
		2.3. Ikasleei orientazioa eskainiz, dituzten aukeren bidez	Eusk. Zerb. Euskaltegiak	2.3.1. Euskaltegiekin batera orientazio-zerbitzuak sortzeko aukerak aztertu.
	Mintzalagun programan ari diren pertsonen kopurua	2.4. Euskarazko harreman sareak sortuz (batez ere gurasoen artean)	Geu Eusk. Zerb.	2.4.1. Mintzalaguna
				2.4.2. Mintzalaguna programa gurasoen kolektibora zabaltzeko

2.2. IRAKASKUNTZA ETA FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA.

Irakaskuntza izan da hizkuntza transmisioaren eta normalizazioaren eragile garrantzitsuenetakoa. Administrazioak, hori kontuan izanik, hezkuntza munduarekin lankidetzan landu behar du eta sinergiak bildu. Gasteizek, gainera, hiri hezitzailea izateko bokazioa du, herritarrak hezteko bide izan nahi du. Udalaren Hezkuntza Sailak, helburu hori buruan, hainbat programa eta baliabide eskaintzen ditu, bai eta gainontzeko sail eta zerbitzuen programak koordinatu ere, baldin eta heziketa helburu badute. Koordinazio horren emaitza da “Gasteiz heziketarako espazio” katalogoa. Erronka da hizkuntzaren normalkuntza izatea udalak antolatzen dituen hezkuntza-programen helburu eta lan-ildoetako bat.

Euskara familia bidez transmititzea da hizkuntzak bizirauteko biderik naturalena, eraginkorra eta merkeena. Familia bidezko transmisioa eta familiaren motibazioa, beraz, ezinbesteko euskarri dira hizkuntzaren normalkuntzan. Konplexua da, ordea, arlo horretan lan egitea; familiak ez direlako hartzaile kaptiboak (ez daude ikasleak eskolan egoten diren bezala, ez dute espazio egituraturik). Transmisioa ia ehuneko ehunetan dago bermatua guraso euskaldunen kasuan. Guraso horiek, euskaldun berriek ere, gero eta gehiago euskara transmititzen diete seme-alabei eta familia bidez transmititzen ez denean eskola bidez ziurtatzen da, neurri handi batean, seme-alaba horiek euskara ikasiko dutela. Erabilerari begiratzen badiogu egoera bestelakoa da: errealitatea da Gasteizko biztanle gehienek etxean gaztelania erabiltzen dutela. Hori horrela, interesgarria da aisialdian gurasoek eta seme-alabek partekatu ahal dituzten euskarazko ekintzak eta jarduerak antolatzea.

Helburuak

1. Udalaren hezkuntza programak hizkuntzaren normalkuntzari begira jartzea.

Estrategiak:

- Udala eta hezkuntza komunitatearen artean komunikazioa hobetuz.
- Eskolaz kanpoko ekintzetan (+udalekuetan) normalizazioaren ikuspegia bultzatuz.
- Helburu gisa euskararen normalkuntza duten programak sortuz edo kontsolidatuz, ikas-tetxeetako beharretatik abiatuta.
- Helburu gisa euskararen normalkuntza eduki dezaketen programak identifikatuz eta landuz.

2. Familia aisialdirako eskaintzetan euskararen normalkuntzaren presentzia indartzea.

Estrategiak:

- Familia aisialdiaren eskaintza aztertuz eta euskarazko irizpideak aplikatuz.
- Euskarazko ekintzen zabalkundea eginez.

GASTEIZKO EBPN 2010-2012 - ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA

Esparrua	IRAKASKUNTZA ETA FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA			
Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ard.	Ekintzak / programak
1. HE Udalaren hezkuntza programak hizkuntzaren normalkuntzari begira jarri	Parte hartzen duen ikastetxe edo erakundeen kop.	1.1. Udalaren eta hezkuntza komunitatearen artean komunikazioa hobetuz	Eusk. Zerb. Hezkuntza	1.1.1. Lan-mahai iraunkorra sortu, urtez urteko planak eta irizpideak eztabaidatzeko
	Hizkuntza irizpideen presentzia eta betetze maila eskolaz kanpoko aisialdi ekintzetan	1.2. Eskolaz kanpoko ekintzetan (eta udalekuetan) normalizazioaren ikuspegia bultzatu	Eusk. Zerb. Hezkuntza Ttakun	1.2.1. EKE, "eskolaz kanpo euskaraz" programa zabaldu.
				1.2.2. Eskolaz kanpoko ekintzak antolatzeko diru-laguntzetan hizkuntza irizpideak jarri eta balorazio-baremoak adostu.
				1.2.3. Udalekuak. Hizkuntza irizpideak jarri eta proiektu guztietan esplizitatzeko eskatu: proiektuaren hizkuntza ikuspegia.
				1.2.4. Interbentzio espezifikoa euskaraz presentzia eskasa duen eskoletan, euskara eskolaz kanpoko ekintzetan agertzeko. 6-12 urteko tartea da lehentasuna.
	Hezkuntzan normalizaziorako programen kopurua. Ikastetxe eta partehartzaile kop.	1.3. Helburu gisa euskararen normalkuntza duten programak sortu edo kontsolidatu, ikastetxeetako beharretatik abiatuta.	Eusk. Zerb. Hezkuntza	1.3.1. ARIN aldizkaria
				1.3.2. Euskarazko produktuen katalogoa
				1.3.3. Euskararen Astea ikastetxeetan.
				1.3.4. Euskal jolasak familientzat.
				1.3.5. Mantangorri ikastetxeetan banatu.
				1.3.6. Ikastetxeek familia-erabileran eragiteko dituzten beharrak eta proposamenak aztertu eta programa horiek diruz laguntzeko aukerak ikusi.
		1.4. Helburu gisa euskararen normalkuntza eduki dezaketen programak identifikatu eta landu.	Eusk. Zerb. Hezkuntza	1.4.1. Adituen lantalde bat sortu (normalkuntzan eta pedagogian adituak), programa edukatiboak aztertu eta dossier bat osatu, programa horiek normalkuntzan nola erabili.
				1.4.2. Soziolinguistika gazteentzat
2. HE Familia aisialdirako udalaren eskaintzan euskararen normalkuntzaren presentzia indartu	Hizkuntza irizpideen presentzia eta betetze maila familia aisialdiaren eskaintzan	2.1. Familia aisialdia eskaintza aztertuz eta euskarazko irizpideak aplikatuz	Eusk. Zerb. Hezkuntza Gizartegi. Kultura	2.1.1. Lantaldea udal sailekin eta eragileekin
	Aisialdi ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kopurua	2.2. Euskarazko ekintzen zabalkundea eginez	GEU Eusk. Zerb.	2.2.1. Euskararen Agendaren barruan atal espezifikoa sortu honetarako

2.3. AISIALDIA

Lehen ere esan dugu: garrantzitsua da herritarrek harremanak euskaraz izateko guneak eta aukerak sustatzea. Gasteizko euskal hiltunen ezaugarri demolinguistikoak kontuan izanik, aisialdia lehenetsunezkoa da gune eta aukera horiek sortzeko.

Udalak pisu handia du aisialdi antolatuan (batez ere haurren kasuan) baina ez da eragile bakarra: enpresak, taldeak, elkarteak... Garrantzitsua da eragile guztiak norabide berean jartzea eta horretarako lankidetzabideak jorratzea: bai administrazioaren eta beste entitateen artean, bai aisialdiaren mundu horretan lanean ari diren pertsonen artean.

Helburuak

1. Aisialdian eragiten dutenen artean euskararen normalizazioaren ikuspegia lantzea.

Estrategiak:

- Komunikazioa eta koordinazioa landuz.
- Eragiten duten elkarteak eta enpresak neurri eta konpromiso zehatzak hartzera animatuz.
- Laguntza eta zerbitzuak eskainiz.

2. Aisialdiko ekintzetan eta programazioetan euskararen eskaintza, presentzia eta erabilera zabaltzea.

Estrategiak:

- Euskararen erabilerarako irizpideak aplikatuz.
- Proiektu espezifikoak diruz lagunduz.

GASTEIZKO EBPN 2010-2012 - ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA

Esparrua	AISIALDIA			
Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ard.	Ekintzak / programak
1. HE Aisialdian eragiten dutenen artean euskararen normalizazioaren ikuspegia lantzea	Parte hartzen duten begiraleen kopurua	1.1. Komunikazioa eta koordinazioa landuz	Eusk. Zerb. Gazteria ERDU	1.1.1. Aisialdia eta euskara lantaldea osatu.
				1.1.2. Begiraleen sarea osatu.
				1.1.3. Topaguneak antolatu, formatu ezberdinak esploratuz
				1.1.4. Elkarleen datu-base bat sortu eta bertan euskararen erabilerari buruzko datuak eta elkarleen beharrak jaso
	Neurri edota konpromisoak hartzen dituzten erakundeen kopurua	1.2. Eragiten duten elkarteak eta enpresak neurri eta konpromiso zehatzak hartzerantz animatuz.	Eusk. Zerb. Gazteria	1.2.1. Dinamizazio programa: — Banan banako harremanak elkarrekin eta enpresekin. — Euren egoera aztertze laguntza. — Azterketa horretatik neurri eta konpromiso zehatzak identifikatu. — Neurriak gauzatzeko laguntzak eskaini.
	Diru laguntza eta zerbitzuen eskaera kopurua	1.3. Laguntzak eta zerbitzuak eskainiz	Eusk. Zerb.	1.3.1. Euskarazko begirale-ikastaroak diruz lagundu. 1.3.2. Hizkuntza normalkuntza aisialdian. Formazioa. 1.3.3. Bestelako zerbitzuak
2. HE Aisialdiko ekintzetan eta programazioetan euskararen eskaintza, presentzia eta erabileraren zabaltzea	Aisialdiko ekintzetan hizkuntza irizpideen presentzia betetze maila	2.1. Euskararen erabilerarako irizpideak aplikatuz	Eusk. Zerb. Gazteria Kultura	2.1.1. Prozedura eta jarraipena egiteko bideak departamentuekin adostu. 2.1.2. Udalaren euskarazko eskaintzaren ikerketa eta ebaluazio zorrotza egin (aisialdia, kultura eta kirolak). Bereziki identifikatu eta ebaluatu behar dira gazteei zuzendutako espazio eta programak. Hobekuntzak garatu.
		2.2. Proiektu espezifikoak diruz lagunduz	Eusk. Zerb.	2.2.1. Euskara Zinema aretoetara
				2.2.2. Aisialdia euskaraz Amaia zentroan.
				2.2.3. Proiektu espezifikoak diruz laguntzeko deialdia.

2.4. KIROLAK

Pertsona helduentzat osasun iturri da kirola. Haur eta nerabeentzat sozializazio-funtzioa ere badu. Horregatik egon da hasieratik Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren lehentasunen artean. Haurrak eta gaztetxoak ikastetxeetan dauden bitartean euskarak leku nabarmenagoa du, baita euren kirol praktikan ere, horretan ere zer hobetu asko dagoen arren. Hortik aurrera euskarak oso presentzia txikia du kirolaren munduan.

Udalak eskumen mugatua du kirol arloan. Dena den, eskola kirolean hainbat zerbitzu eskaintzen du eta aisialdi-kirolean eskaintza zabala du gizarte etxe eta kiroldegietan. Jarduera horietan euskararen presentzia handitzeko estrategia ezberdinak landu beharko lirateke: aukerak aztertu eta eskaintza egokituak asmatu.

Bestalde kirol-talde eta elkarte ugari dago hirian; gehienak oso txikiak dira eta euskarak oso presentzia txikia du horietan: belaunaldi berriak talde horietara heltzen diren neurrian handituko dira euskaraz egiteko aukerak. Horretarako laguntza beharko dute.

Helburuak

1. Udalak antolatzen dituen kirol programetan euskararen erabilera handitzea.

Estrategiak:

- Euskararen erabilerarako irizpideak aplikatuz.

2. Gasteizko kirol elkarteetan eta taldeetan eragitea, euskararen presentzia eta erabilera handitzeko.

Estrategiak:

- Arabako Foru Aldundiarekin elkarlana definituz.
- Eragiten duten elkarteak eta enpresak neurri eta konpromiso zehatzak hartzera animatuz.
- Formazioan eraginez.
- Laguntza eta zerbitzuak eskainiz.

GASTEIZKO EBP 2010-2012 - ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA

Esparrua	KIROLA			
Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ard.	Ekintzak / programak
1. HE Udalak antolatutako kirol programetan euskararen erabilera handitzea	Kirol programetan hizkuntza irizpideen presentzia eta betetze maila	1.1. Euskararen erabilera irizpideak aplikatuz	Kirolak Eusk. Zerb.	1.1.1. Prozedura eta jarraipena egiteko bideak sailekin adostu.
2. HE Gasteizko Udalen eskumenetan dauden kirol elkarteetan eragitea euskararen erabilera handitzeko	Neurri edota konpromisoak hartzen dituzten erakunde kopurua	2.1. Arabako Foru Aldundiarekin elkarlana definituz		
		2.2. Eragiten duten elkarteak eta enpresak neurri eta konpromiso zehatzak hartzerantz animatuz.	Eusk. Zerb.	2.2.1. Dinamizazio programa: — Banan banako harremanak elkarrekin eta enprekin. — Euren egoera aztertze laguntza. — Azterketa horretatik neurri eta konpromiso zehatzak identifikatu. — Neurriak gauzatzeko laguntza eskaini.
		2.3. Formazioan eta sentsibilizazioan eraginez	Eusk. Zerb. Kirolak	2.3.1. Euskarazko baliabideak eskura jarri.
		2.4. Laguntzak eta zerbitzuak eskainiz	Eusk. Zerb.	2.4.1. Itzulpen zerbitzua 2.4.2. Euskara ikasteko diru-laguntzak 2.4.3. Elkarteetan eta enpresen ezaugarriak eta egoera aztertu eta laguntza definitu.

2.5. KULTURA

Euskararen inguruan gehienbat formatu txikiak oso ondo funtzionatzen du. Ez da ekintza handi-handirik antolatzen, baina badira hainbat entitate publiko eta pribatu euskarazko ekitaldiak antolatzen dituztenak. Ekitaldi dezente antolatzen da eta arrakastatsu gertatzen dira gehienetan. Entitate horien guztien arteko lankidetza landu behar da: sare moduan funtzionatzea eta baliabideak ere partekatzea.

Helburuak

1. Euskarazko produktuen merkatuan eragitea

Estrategiak:

- Proiektu berriei jarraipena eginez.
- Euskarazko sorkuntza bultzatuz.
- Euskarazko produktuen kontsumoa bultzatuz.
- Euskarazko produktuen kontsumoari erantzuteko eskaintzan eraginez.

2. Euskarazko kultur eskaintza koordinatzea eta gizarteratzea.

Estrategiak:

- Eragileen artean koordinazioa eta lankidetza handituz.
- Zabalkundea hobetuz.

GASTEIZKO EBPN 2010-2012 - ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA

Esparrua	KULTURA			
Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ard.	Ekintzak / programak
1. HE Euskarazko produktuen merkaturaren eragitea	Euskarazko produktuen Gasteizko programatzaile edota saltzaile kopurua	1.1. Proiektu berriei jarraipena eginez.	Eusk Z. Kultura	1.1.1. Egitasmoetan Euskara Zerbitzuaren presentzia bermatu.
		1.2. Euskarazko sorkuntza bultzatuz	Eusk Z. Kultura Gazteria	1.2.1. Gasteizko sortzaile euskaldunen gida sortu eta programazioen arduradunen artean zabaltzea 1.2.2. Vitoria-Gasteiz saria. Irakurzaletasuna.
		1.3. Euskarazko produktuen kontsumoa bultzatuz	Eusk Z. Hezkuntza	1.3.1. Euskarazko produktuen katalogoa
		1.4. Euskarazko produktuen kontsumoari erantzuteko eskaintza eraginez	Eusk Z.	1.4.1. Mailinga egin daiteke liburu-dendetara eta jostailu-dendetara (batez ere), euskarazko produktuen berri emateko eta produktu horiek saltzera gonbidatuz.
2. HE Euskarazko kultur eskaintza gizarteratzea	Euskarazko kultur eskaintza parte hartzen duten pertsonen kopurua	2.1. Eragileen artean koordinazioa eta lankidetzak handituz	GEU	2.1.1. Euskararen Agenda: (a) zabalkundean ez ezik koordinazioan aurrerapausoak eman, (b) atalka egin: euskaldunberriak, familia, zinema, etab... (c) zabalkunderako bide berriak bilatu.
		2.2. Zabalkundea hobetuz	Eusk Z. Kultura	

2.6. MERKATARITZA

Esan dugun bezala, merkataritzak garrantzi berezia du bere eragina biztanle guzti-guztiengana heltzen delako eta hiriko hizkuntza paisaian duen pisu espezifikoagatik. Erabileraren datuak oso txikiak dira: %2 inguru ahoz, %5 idatziz, %8 marketingeko elementuetan..., baina euskararekiko interesa nabarmentzen hasi da, oraindik era apalean besterik ez bada ere: euskara establezimendua modu positiboan bereizteko aukera gisa ikusten hasi da; komunikazio komertziala eta eskainitako zerbitzua hobetzeko aukera ematen duelako eta ondorioz, merkatu segmentuak erakarri eta fidelizatzeko tresna izan daitekeelako.

Merkatarien pertzepzioa da sektorean euskara sustatzeko proiektuak kanpotik datozela, administrazioen hizkuntza politiken ondorioak direla eta ez merkataritza arloko eragileen ekimena. Interesgarria da, beraz, eragileen beren inplikazioa eta lidergoa sustatzea eta sektorean bertan praktika egokien erreferenteak sortzea. Garrantzitsua da, halaber, euskara sustatzeko ahaleginak dakarren kostea ahalik eta txikiena izatea.

Helburuak

1. Komunikazio ekintzen bidez, euskarak merkataritza arloan duen irudian eragitea, erakarriagoa eginez.
Estrategiak:
 - Egoera aztertuz eta agerian jarriz.
 - Sentsibilizatuz.
 - Ahaleginak sarituz.
2. Zerbitzuen eta laguntzen bidez, euskararen presentzia, ezagutza eta erabilera handitzea, sustapen prozesu hau merkataritza sektorearen interes eta premiei egokituz.
Estrategiak:
 - Establezimenduei zerbitzuak helaraziz.
 - Zerbitzu zehatzak eskainiz.
 - Eragile izan daitezkeen establezimenduetan aurrerago joanez.

GASTEIZKO EBPN 2010-2012 - ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA

Esparrua	MERKATARITZA			
Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ard.	Ekintzak / programak
1. HE Komunika- zio ekintzen bidez, euskarak merkataritza arloan duen irudian eragitea, erakargarriagoa eginez.	Antolatzen diren bileretan, komu- nikazioetan..., partaide edo hart- zaile kopurua.	1.1. Egoera bisualizatuz	Eusk Z. Merkat. Z.	1.1.1. Lan-taldea sortu lan-ildoak, irizpideak eta gestio-planak eztabaidatzeko eta lantzeko. Taldean udaleko ordezkariak, arloko eragileak eta oro har merkataritzan euskara sustatzeko interesak dituzten entitateek parte hartu ahal izango dute. 1.1.2. Topaketa informalak bultzatu Gasteizko establezimendu euskaldunek euren esperientzia partekatuz. 1.1.3. Gasteizko hiritarren erosketa eta hizkuntza jokabideak ezagutzeko ikerlana. 1.1.4. Ikerlanaren komunikazioa eta sozializazioa. 1.1.5. Establezimenduen datu-basea osatu, bakoitzaren ezaugarri soziolinguistikoekin.
		1.2. Sentsibilizatuz	Eusk Z.	1.2.1. Establezimendu harremanetan eta hartu-eman komertzialetan euskarazko eskaera sustatzea helburu duen komunikazio-kanpaina
		1.3. Ahaleginak sarituz	Eusk Z.	1.3.1. Euskararen sustapena merkataritza establezimenduen praktika onen artean saritu. 1.3.2. Zerbitzuen eta produktuen katalogoaren barruan bereizgarria sortu, euskarazko zerbitzua ziurtatu ahal duten langileak identifikatzeko.
		2.1. Establezimenduei zerbitzuak helaraziz.	Eusk Z. Merkat. Z.	2.1.1. Gasteizko zerbitzu eskaintzaren promozioa, kudeaketa eta jarraipena egin. 2.1.2. Establezimendu berrien irekieran idatzizko erabilera sustatzeko neurriak, zerbitzuak eta laguntzak koordinatzea.
		2.2. Zerbitzu zehatzak eskainiz	S. Eusk Kontratazioa	2.2.1. Establezimenduen errotulu nagusia euskaratzeko diru-laguntza 2.2.2. Euskara ikasteko formazio eskaintza: — Hastapen-ikastaroa eta euskara komertziala — Euskara ikasteko diru-laguntzak 2.2.3. Euskarri komertzialak eskaini euskaraz ala ele bietan. 2.2.4. Barruko kartelak eta komunikazio komertzialak euskaratzeko eskaintza
		2.3. Eragile izan ahal diren komertzioak identifikatu, aurre-rago joateko.	S. Eusk Kontratazioa	2.3.1. Lehentasunezko establezimenduetan Merkataritza Euskalduntzeko Plangintza Integralak (MEPI) egin
2. HE Zerbitzuen eta laguntzen bidez, euskararen presentzia, ezagutza eta erabilera handitzea, sustapen prozesu hau merkataritza sektorearen interes eta premiei egokituz.	Eskaera kopurua, orotara eta atalka. Plana abian jarriko duten establezimenduen kopurua			

2.7. GAZTEAK

Gazteen artean euskarak bere lekua egin du. 15-29 urte arteko gasteiztarren erdiak euskaraz daki eta hamarretik zortzik euskaraz ulertzen du: elebidunak, beraz, gehiago dira erdal elebakarrak baino. Oso datu positiboak dira, bestelako aldaketak ere eragin beharko lituzketenak. Udalak berak, jakina, oso kontuan eduki beharko ditu datu hauek, gazteak artatzeko edo gazteentzako zerbitzuak antolatzeko orduan.

Interesgarria da, halaber, gazteek beraiek ere egoera horren kontzientea izatea eta jokatu behar duten paperaren inguruan hausnartzea. Erakundeetan, elkarteetan, taldeetan konplexuak dira hizkuntza aldaketak: motibazio handia behar izaten da, baita laguntzak ere.

Hemen agertzen diren helburuak eta ekintzak batera landu dira Euskara Planean bai Gazte Planean. Horregatik, hain zuzen ere, atal oso bat eskaini diogu kolektibo honi.

Helburuak

1. Gazteekin batera hizkuntza normalizazioaz hausnarketa egitea.

Estrategiak:

- Errealitatea hobeto ezagutuz.
- Hausnarketarako eta eztabaidarako espazioak sortuz.

2. Gazte taldeei laguntza ematea, beraien jarduna euskaraz izateko.

Estrategiak:

- Eragiten duten elkarteak eta enpresak neurri eta konpromiso zehatzak hartzera animatuz.
- Laguntzak eta zerbitzuak eskainiz.

GASTEIZKO EBPN 2010-2012 - ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA

Esparrua	GAZTEAK			
Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ard.	Ekintzak / programak
1. HE Gazteekin hizkuntza normalizazioaz hausnarketa egitea	Formazio eta hausnarketa saioetan parte hartu duten pertsonen kopurua	1.1. Errealitatea hobeto ezagutuz	Eusk Z. Gazteria EHU	1.1.1. "Euskara eta Gazteak" ikerketak antolatu.
		1.2. Hausnarketarako eta eztabaidarako espazioak sortuz.	Eusk Z. Gazteria Hezkuntza	1.2.1. Worldcafe: "100 gauza erraz gazteok egin ahal ditugunak gure bizitzan euskarari lekua egiteko"
				1.2.2. Soziolinguistika Gazteentzat. Hezkuntza programa.
		1.3. Sentsibilizazioa landuz	S. Eusk. Gazteria Hezkuntza	1.3.1. Euskararen eguna: ohiko programazioa + DBH/ BATXILERGOA + ikastetxeetako kanpaina
2. HE Gazte taldeei laguntza ematea beraien jarduna euskaraz izateko	Neurri edota konpromisoak hartzen dituzten erakunde kopurua	2.1. Eragiten duten elkarteak eta enpresak neurri eta konpromiso zehatzak hartzera animatuz.	Eusk Z.	2.1.1. Dinamizazio programa: — Banan banako harremanak elkarteekin eta enpresekin. — Euren egoera aztertze laguntza. — Azterketa horretatik neurri eta konpromiso zehatzak identifikatu. Neurriak gauzatzeko laguntzak eskaini.
	Eskaera kopurua	2.2. Laguntzak eta zerbitzuak eskainiz	Eusk Z.	2.2.1. Elkarteen eta enpresen ezaugarriak eta egoera aztertu eta zerbitzuen katalogo bat osatu.
				2.2.2. Doako itzulpen zerbitzua, gazte elkarreentzat.

2.8. IMMIGRAZIOA

Ez da zilegi esatea gaur egungo immigrazioak euskarari arazo berriak ekarri dizkionik. Gizarte gertaera den aldetik eragina du hizkuntzaren indarberritze-prozesuan ere: zenbait mehatxu ekarriko ditu, baina baita aukera handiak ere. Hori horrela; eskolan, aisialdian, kulturen, merkataritzan... arlo horietan guztietan esku-hartzea aurreikusten denean presente izan behar dugun egoera izango da immigrazioa. Esku-hartze espezifikoari dagokionez, etorkinen harrera-prozesuak besterik ez da kontuan hartu.

Helburua

1. Etorkinei euskarari buruzko informazioa ematea.

Estrategiak:

- Udalaren harrera prozedurak aztertuz.
- Harreran txertatu beharreko informazioa definituz.
- Informazio eta sentsibilizazio ekintzak antolatuz.

GASTEIZKO EBPN 2010-2012 - ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA

Esparrua	IMMIGRAZIOA			
Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ard.	Ekintzak / programak
1. HE Etorkinei euskarari buruzko informazioa eman	Bilerak eginda / harre-ra prozedura aztertuta	1.1. Udalaren harrera prozedura aztertuz	Eusk Z. Gizartegintza Beste batzuk	1.1.1. Hainbat bilera, horretan ari diren teknikari eta administrariekin.
	Informazioa definituta	1.2. Harreran txertatu beharreko informazioa definituz	S Eusk. Gizartegintza Beste batzuk	1.2.1. Informazio euskarri bat definitu eta horren inguruan formazio saio bat prestatu
	Zabalkundea	1.3. Informazioa eta sentsibilizazioa landuz	S Eusk. Gizartegintza Hezkuntza	1.2.3. Sentsibilizazio-ekintzak: euskara eta kulturartekotasuna

2.9. GENERO IKUSPEGIA

Euskara biziberritzeko planetan ez da genero ikuspegiari buruzko planteamendu sistematzaturik. Gasteizen euskararen diagnostikoa definitzen duten datu soziolinguistikoetan ere kasu guztietan ez dugu generoaren araberako desagregaziorik.

Helburua

1. Euskararen sustapenari dagozkion politiketan eta jardunbideetan generoaren ikuspegia landu.

Estrategiak:

- Datu soziolinguistiko nagusiak generoaren ikuspegitik berrirakurtzea.
- Euskara Zerbitzuaren programa eta jarduera zehatzetan generoaren ikuspegia lantzeko beharra edo aukera aztertzea.

GASTEIZKO EBPN 2010-2012 - ESPARRUAK ETA HELBURUEN HEDAPENA

Esparrua	GENERO IKUSPEGIA			
Helburu estrategikoak	Adierazleak	Estrategiak	Ard.	Ekintzak / programak
1. HE Euskararen sustapenari dagozkion politiketan eta jardunbideetan generoaren ikuspegia landu.	Azterketa egina: bai/ez	1.1. Datu soziolinguistiko nagusiak generoaren ikuspegitik berrirakurtzea	Berdintasun S. Euskara S.	1.1.1. Hiriko errealitate soziolinguistikoa genero ikuspegitik aztertu eta Euskara Zerbitzuaren programetan genero ikuspegia lantzeko beharraren azterketa egin
	Genero ikuspegia aplikatu zaien programa kopurua	1.2. Euskara Zerbitzuaren programa eta jarduera zehatzetan generoaren ikuspegia lantzeko beharra edo aukera aztertzea	Berdintasun S. Euskara S.	1.2.1. Programen azterketa eta egokitze-proposamenak

2.10. AURREKONTUA

Dokumentu honetan zehaztu diren ekintzen aurrekontua Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak indarrean iraungo dituen hiru urteei dagokie. Urtez urte, kopuruak honakoak dira:

2010	2011	2012
391.445 €	423.945 €	458.445 €

Plana garatzeko, aurrekontu espezifiko honez gain, dokumentuak bestelako programa kontsolidatuei egiten die erreferentzia. Horietako bakoitzak aurrekontu propioa du planaren aurrekontutik kanpo. Programak eta aurrekoak 2010. urtean honakoak dira:

- Guraso-programa, euskara-ikastaroak gurasoentzat: 369.000 €.
- Euskara ikasteko diru-laguntzak: 74.676 €.
- Hitzarmenak euskaltegiekin: 85.583 €.

Plana garatzeko kanpoko finantziazioa ere aurreikusita dago. Urtez urte, honako ekarpen ekonomiko hauek daude aurreikusita:

- Hitzarmena Arabako Foru Aldundiarekin: 40.000 €.
- Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza: 52.500 €.

Hori horrela, Gasteizko Udalak datozen hiru urteetan honako aurrekontua izango du Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko:

	2010	2011	2012
2 atala	200.000 €	221.000 €	244.000 €
4 atala	99.000 €	110.445 €	121.945 €
Orotara	299.000 €	331.445 €	365.945 €

3

EBALUAZIOA



3

EBALUAZIOA

Plana hainbat esparrutan dago banatua. Esparru bakoitzean helburu espezifikoak proposatzen dira, eta helburu horietako bakoitzak adierazle propioak ditu. Euskara Zerbitzuak urtez urte txostena aurkeztuko du Euskararen Sektore Kontseiluan, egindakoaren deskargua egiteko eta adierazle horien guztien arabera emaitzen berri emateko. Arlo kualitatiboa ere zaindu nahi da eta ahal den neurrian eragile ezberdinen balorazioak ere kontuan hartu. Euskararen Sektore Kontseiluak, txostenak aztertu ondoren, bere iritzia eman ahal izango du edota hobekuntzak proposatu.

Hiru urteren buruan Euskara Zerbitzuak egitasmoaren kanpo-ebaluazioa bideratuko du, bai ikuspegi kualitatibotik eta bai ikuspegi kuantitatibotik. Horretarako aholkularitza-enpresa baten zerbitzuak kontratatuko ditu, lan horietan adituak diren entitateen hainbat proposamen aztertu ondoren.

